

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

## 2020

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

HIRUGARREN SARIA:

### *Eguzki berritan*

### Irantzu Olariaga Zubizarreta

Milioika metro segundoko abiaduran sartu ziren lehen eguzki izpiak. Leihoaren beira zurruna zeharkatu, ondoren lurrunezko geruza (gela barneko beroak kanpoko hotzarekin talka egitean sortua) eta bukatzeko zurezko pertsiana igaro zuten. Laserraren modura zuzendu ziren aurpegira, ile marroi iluna erre eta bularralde biluzia laztanduz. Bero zegoen logela, baina are gehiago berotu zioten gorputza ohean buruz gora lo zegoen gazteari. Begi bat ireki zuen, alfer. Argiz bete egin zen: begi-nini inguruan, eguzki-lore bat bailitzan, orban horixka zeukan, atzeko itsaso berde ilunean flotatzen zuena. Eskuak ukabil bihurtu, eta mugimendu azkar batez, begiak igurtzi zituen. Enborra altxatu, eta sabelaldea gogortuz, ohe ertzean eseri zen. Hamaikak edo izanen dira, pentsatu zuen, pare bat eguneko bizarra hazkatzen zuen bitartean. Ohetik jaiki eta hura begiratu zuen. Maindireak guztiz aterata, eta burusia lurrean etzanda. Batzuetan damutu egiten zen birentzako ohe horrekin gelditu izanaz; izan ere, alferregia zen egunero ongi egiteko. Ohe ondoko mahaian tamaina ertaineko beirazko baso bat zegoen, bere begietako eguzki-lore koloredun orbainekin zikindua. Parean, Brugal botila, tente-tente. Hutsik zegoen ia. Horrela egotea bekatua balitz bezala, soberan zegoen rona basoan bota eta aldi batean edan zuen. Mikatza zen; ez zion axola.

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

HIRUGARREN SARIA:

Logela egongelatik bereizten zuen arku zabala zeharkatu eta eguneko prentsa irakurtzen hasi zen, kafetera betetzen zuen bitartean. Bonbardaketak urrutiko hirietan, emakume bat eraila bere auzoan, azken alderdi sasi-iraultzailearen enegarren zurrumurrua. Sukaldeko marmolean bizilagunak oparitutako loreak zeuden, zimeltzeko zorian. Sofa ondoko mahaitxora bota zuen egunkaria, ondotik gela gurutzatu eta komunera sartuz. Konketa gainean zintzilikatutako ispiluaren aitzinean, bere buruari begira gelditu zen une batez: argaltasunaren itxura gaixotia izkutatzen zuen azalaren oliba koloreak. Ilea, lehen tximak ikusten hasia, atzeraka botatzen zuen, ohituraz dagoeneko: batzuetan eskuz, bestetan burua astinduz, harroputz. Sama, bizioak gorriturik; lepauztaian, tatuaje bi; eta besaurrean, zainak hanturik. Makinillarekin kendu zuen bizarra, baita bularraldeko iletxoak ere. Zahar itxura ematen ziotenaren ustetan bizi zen. Begirada zorrotza bota zion ispiluko tipoari. “Zu bai gizaki nazkantea” esan zuen ozen, dutxara sartu aurretik.

Kalean hanka bat jarri bezain laster, eguzki izpiek aurpegia erasotu zioten, bigarren aldiz. Pixka bat itxi behar izan zituen, lehen momentuan, ongi ikusi ahal izateko. Estudioa hiriko erdigunean kokaturik zeukan, beraz bazekien bere zulutik ateratzean zer topatuko: jende mordoa, harat-honat korrika, Afrikako ñuen antzera, baina norabide ezberdinetan. Oihanaren anabasari beldur izan ziezaiokeen batek, baina eurak basati bat gehiago besterik ez zela ongi bazekien. Eskuko bi hatzak altxa, errepidearen ertzean, eta telefono mugikorra egunean lehen aldiz begiratu zuen. Agentearen lau dei galdu. Beranduago deituko zuen. Taxia, bere ondoan gelditzean, errepideko putzu batetik igaro zen, gizon gaztearen panazko galtza beltzak pixka bat bustiz. “Gidari ona zu!” bota zion autoan sartzen zela “honek egun ona izanen dela esan nahi du, ziur”. Ironia biolentoak ez zuen taxilaria izutu eta elkarrizketa eman zion bezero berriari, hiriko urbanizazio zonaldean barna sartzen zirela. “Etxeren bat begiratzera zatoz? Familia berri gehienak honat datoz azken aldian. Oso gazteak dira auzo hauek”. “Ez, ez. Ilobaren bataioa da zita. Tira, erdi beharturik nator, egia esan. Ahizparen senarra inbertitzailea da, eta aginduak ditu gustuko. Ni ordea aginduak jasotzera ohitu naiz, antza denez”. “Berarentzat lanean zabiltza?” Taxilariaren kultura ezagutza maila epaitzera zihoala,

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

HIRUGARREN SARIA:

orduantxe gelditu zen kotxea. Berrogeita hamarreko billetea eman zion eskura, eta kanpoan zegoela ia, erantzun zion. “Aizu, gorde ezazu propina. Eta, bide batez: margolaria naiz”. Autoari bizkarra eman eta elizara hurbildu zen oinez. Ba bai, artista bat enpresariaren jopu.

Zeremonia hasita zegoenez, gibelaldeko bankuetako batean eseri zen. Zurezko ate sendoak pixka bat kirrinkatu eta kolpe idor batez itxi zen. Azken ilaretako pertsona batzuek begiratzeko buelta eman zuten, bisitari berria begiradarekin epaituz. Neska eder batek ere begiratu zuen, zeharka. Beste garai batzuetan, neskari begira pasa izanen zuen meza osoa, eta gero beregana hurbildu eta noizbait taberna moderno batera gonbidatuko zuen. Beste garai batzuetan, emakumeengan aurkitzen zuen inspirazioa. Musak zituen kale kantoietan. Beste garai batzuetan. Orain, aurreko gaueko striptease klubeko emakumeen gorputzez oroitu zen, gyn tonic eta karta partidez. Ez zegoen harro: ez zekien noiz aldatu zen dena, baina une horretan praktika horiek definitzen zutenaz kontziente zen. Bere onerako, goiz bukatu zen artzapezpikuaren ur-espektakulua eta bermuta hartzeko ordu onean utzi zuten guztiek eliza.

Viktor izan zen lehena beregana hurbiltzen. Jatetxearen kanpoko terraza gurutzatzen zuen bitartean, beregana heltzeko, “hemen dugu etxeko artista! Nire adiskide maitea!” oihukatu zuen aho betez, denek entzun zezaten. Bi marianito zekartzan eskuetan. “Gure gustura: italiarra zuretzako, iluna, eta frantziarra nirea, argia”. Gaztetako pisuan, elkarrekin bizi zirela, zaletu ziren biak alkoholaren artean. Beranduago ikasi zuen gure protagonistak Viktorrek luxua bilatzen zuela prestatzen zituzten koktel dotore horietan; berak, aldiz, ihesbidea. “Zer da hau, Trumanen showa?” bota zion gure mutikoak “aspaldi ez zintudala hain maitekor ikusten. Bada, egia esan, sei hilabete dira gure azken solasalditik”. Hain zuzen, hitz politikak eta laguntasuna bizkor bukatu ziren. “Kontrolatu zaitez gaur, entzun? Egun garrantzitsua da guretzat, batez ere zure arrearentzat. Oraindik oroitzen dut zein penagarria izan zen gure ezteibidaia, ezkontzan ederra egin zenuelako”. Nazka aurpegia jarri zion Viktorrek, zigarroa piztu zuenean. “Oraindik zabilta tabakoan? Txo, galtzaileen ikur da hori... Ah, gauza txiki bat: zure agenteak deitu nau. Azken aldian produkzio gutxirekin zabilta, ala? Zure margolanak izenagatik bakarrik garesti saltzen dira, badakizu. Beraz, ez zaitez gehiegi kezkatu, eta emaiozu egurra, ados?”

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

HIRUGARREN SARIA:

Agentziak sarituko zaitu". Ondotik, gorbata ongi lotu eta beste gonbidatu batzuegana hurbildu zen.

Gainerako ospakizun eguna aski isilik igaro zuen. Barrenak nahasten zizkion, aldiro, familia eta aspaldiko lagunekin elkartzek. 28 urte bakarrik bazituen ere, agurea sentitzen zen bizitza horretan. Ez zuen deus zirraragarririk aurkitzen bere inguruan, gezur eta kaiola txikiez aparte. Berea propioa, artelan eta gauaren artean igarotzen zuen. Bazekien ingurukoak beragatik atsekabetzen zirela. Eloi, bazkarian bere ondoan eseri zen txikitako laguna, adibidez. Eskola urteetan, logela partekatzen zuten barnetegian, eta batak bestearen lehen aldi guztiak ezagutzen zituen. Viktor eta berarekin ere bizi izan zen, hirurak etxe berean. Viktorrek azkar alde egin zuen handik, bikotearekin bizitzera, soldatak hura ahalbidetu zion bezain laster. Baina bi lagunak han gelditu zirenean, pisu hori kaleko bihotza bihurtu zen. Eloiren musikak eta bestearen pinturak blaitzen zituzten paretak, oheak, jakiak. Arrakastaren usainak bultzaturik, inon ikusi ez diren festarik onenen anfitrioi izan ziren, elkarrekin besarkatu zuten eromena. Baina pianista profesional bihurtu zen Eloi, eta hiri handiko elitean murgildu, eta moda-gizon bat ezagutu zuen, maitemindu eta elkarrekin bizitzera joan ziren. Orduan bakardadeak hartu zuen, beste garai batean paradisua bera izandako etxea, eta margolariaren gainbehera hasi zen.

Argi zegoen ibilbide desberdinak hartu zituztela bere inguruko pertsonak. Euren bizitza perfektuetan galdurik, perfektuak zirela sinetsi beharra zuten, halabeharrez. Eloi bera, partituren aurrean pasa zuen bizitza osoa, besteen lanak jotzen eta mila aldiz errepikatzen, ez dakit zeinek ebaluatu zezan. Bizkarra hautsi zuen pianoaren aurreko aulki gogorrean, zintzo-zintzo, eta behingoz berak konposaturiko horrek balioa lortu zuenerako, gaztetasuna joana zitzaion jada. Bere musika, hainbeste urteetan zehar buruz ikasitako pentagramen berdin-berdina zen. Saria? Eserleku erosoagoa eta influencerren mailako atikoa.

Bere ahizpa handik zebilen ere, ile gorria motots bilduan, uneoro haurrez zein helduez kezkatzen. Oroitu zen berarekin izandako elkarrizketez, aitaren hiletan, edo eguberrietan. Bere neba txikia zaintzen saiatua zen behin baino gehiagotan, baina ezinezkoa zirudien. Ezgai ziren biak euren sentimenduez

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

HIRUGARREN SARIA:

hitz egiteko, euren bizitzek mintzatzeko. Agian, neskak mutikoa zaintzeko sentitzen zuen ardura hori zen arazoaren muina. Izan ere, bizitza desberdinak izan zituzten, bakoitzak bere modura, baina biak asegabe. Gogoratzen zituen oraindik txikitako jolasak eta irriak, ama oraindik zegoenean. Libre ziren, bi haur aske. Nerabezaroak ekarri zuen ahizparen aldaketa, eta orduan hasi zen amatasun ezaugarri aristokratiko hori bereganatzen, bere patua balitz bezala, bere ustetan amak hartu behar izandako paper hori betetz. Baliteke horregatik aukeratu izana Viktor, bizitza aburgesatzeko nahi itsua atzean izanik. Zaintzaile eztitsu eta otzanaren rol hori ez zegokion berari, ez bere ahizpari. Baina ibilbide hori hartu eta errealitatea ezagutu nahi ez, kaiola txikian bere burua giltzapetu zuen, inguruko denak bezalaxe.

Ez zituen atsegin ospakizun horiek, ez. Dena amaitzean, bazkaritik erdi mozkor zebiltzala oraindik, estudiorako bidea luzatzea erabaki zuen. Horrela, paseoan joan zen bus geltokira, pentsakor. Beti aurkitu dizkiot akatsak besteen bizitzei. Zalantzez begiratu diet beti besteen hautuei. Aldiz, zeintzuk izan dira nireak? Zer egin dut nik bizitza honetan, gustuko ez nuenaren aurrean ezikusiarrena egiteaz aparte? Leporaino sartu gara denak gurrpil honetan, eta orain ez dakigu nola atera... Pentsamenduetan murgildurik, autobuseko beiraren kontra jarri zuen burua. Orduan irri bihurri batek deitu zion arreata. Neskatxa oso gazte bat eseri zitzaion ondoan, eta pantailako bideo bati ari zitzaion irrizka. Barrea ez zen ozena, baina bazen egiazkoa. Inork ez luke hori kolokan jarriko. “Zer da hori?” galdetu zion mutikoak “ikus dezaket?” Neskatilak ez zuen harridura aurpegirik ere jarri. Mugikorra mugitu, eta biak bideoaz barre egiten hasi ziren. Etengabe erortzen ari diren pertsonen “compilation” horietako bat zen. Absurdoetan absurdoena. Barre-algarak autobusean barna entzuten ziren, baina bakarrik zeuden. Beraiek bi bakarrik, ozen irri egiten. Burutik zenbait pentsamendu pasa zitzaizkion gizonari: zergatik eseri zitzaion haurra ondoan, eserleku guztiak libre egonik, edo ea ez al zegoen gaizki heldu batentzat bideo horretaz irri egiten ibiltzea... Baztertu zituen denak, nahigabeen, edo nahi eta nahi ez. “Gabon!” epel batekin gidaria agurtu eta autobusetik jatsi zen.

Milioika metro segundoko abiaduran sartu ziren lehen eguzki izpiak. Ez zuen oroitzen zein izan zen hain ongi lo egiten zuen azkenengo aldia. Bi begiak ireki,

# IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

HIRUGARREN SARIA:

eta eguzki-loreek sabaiari begiratu zioten, irrifartsu. Ohea egin zuen, ez ederki, ezta erdizka ere. Ohe ondoko mahaian tamaina ertaineko beirazko baso bat zegoen; parean, Brugal botila, hutsik, atzo utzitako leku berean. Lepotik heldu eta urez bete zuen sukaldean. Ia-ia zimeldurik zeuden loreen zutoinak sartu zituen botilan, petaloak airea arnasten utziz. Egongelako mahaia leku aproposa aurkitu zuen botila paratzeko. Irratia piztu eta etxe osoan entzun zen Gariren ahots leuna. Komunean, dutxara sartu baino lehen, bere buruari begiratu zion mutikoak konketa gainera ispiluan. Amaierara heldua zen bizitza mikatzaren tragedia hura. Ondoko gelako irratia entzuten zen, baxu-baxu. Honela zioen aski ezaguna zitzaion kantak: “ez bila, ez galde; badakizu, eguzki berritan zaude...”